

1. OI, PELLO PELLO

Oi, Pello Pello! Logale nauk eta jinen niza oherat?
Irun ezan eta gero, gero, gero...irun ezan eta gero,
gero, bai!

Oi, Pello, Pello! Irun diat eta jinen niza oherat?
Astalka zan eta gero, gero, gero...astalka zan eta
gero, gero, bai!

Oi, Pello, Pello! Astalkatu diat eta jinen niza oherat?
Harilka zan eta gero, gero, gero...harilka zan eta
gero, gero, bai!

Oi, Pello, Pello! Harilkatu diat eta jinen niza oherat?
Xuri ezan eta gero, gero, gero...xuri ezan eta
gero, gero, bai!

Oi, Pello, Pello! Xuritu diat eta jinen niza oherat?
Irazki ezan eta gero, gero, gero...irazki ezan eta
gero, gero, bai!

Oi, Pello, Pello! Irazki diat eta jinen niza oherat?
Pika ezan eta gero, gero, gero...pika ezan eta
gero, gero, bai!

Oi, Pello, Pello! Pikatu diat eta jinen niza oherat?
Jos ezan eta gero, gero, gero...jos ezan eta
gero, gero, bai!

Oi, Pello, Pello! Josi diat eta jinen niza oherat?
Argia dun eta bihar, bihar, bihar...argia dun eta
jin izan bihar!

2. IPARRAGIRRE

Iparragirre abila dela
askori diot aditzen
eskola ona eta musika,
hori hoiekin zerbitzen.
Ni ez nauzu ibiltzen
kantuz dirua biltzen,
komeriante moduan;
debalde festa preparatzen det
gogua dedan orduan. | berriz

Eskola ona eta musika,
bertsolaria gainera;
gu ere zerbait izango gera
horla hornitzen bagera.
Atoz gure kalera,
baserritar legera,
musika hoiek utzita;
Errenterian bizi naiz eta
egin zaidazu bisita. | berriz

3. BAKE MINA

Gizadiak maite-mina, Izadiak arreta-mina,
Etorkinak herri-mina, Herri umek bake-mina.

Laborari ta langile, Sinestedun ta bilatzaile,
Bidez-bide, kalez-kale, Izan gaiten bakegile.

Zatiketak etsipena, Elkarketak itxaropena,
Gorrotok pairamena, Bakarmenak askapena.

(Musika)

Solas-bide, elkar-bide, Maita-bide ta aska-bide.
Zuzen-bide, bake-bide, Oro dire zorion-bide.

Gizadiak maite-mina, Izadiak arreta-mina,
Etorkinak herri-mina, Herri umek bake-mina.

4. URRUNDIK

Urrundik ikusten dut, ikusten mendia,
beraren gibelean baitut nik herria.
Jadanik dut aditzen, zorion handia,
ezkila maitearen hasperen ezitia. | berriz

Ez naiz handietarik gizonen artean,
urrun bakarrik nago mendien gainean.
Artaldeko bat daukat han nere mendian,
harekin bizi bai naiz gustu ederrean. | berriz

5. A, A, A ARDO GORRI NAPARRA

A, a, a: ardo gorri naparra,
eztarriko lakarra,
kentzen hau dek azkarra:
a, a, a: ardo gorri naparra.

E, e, e: ni ardoaren alde,
goiz eta arratsalde,
beti naiz haren alde:
e, e, e: ni ardoaren alde.

I, i, i: ardoak gaitu bizi,
noizik behin ongi busti,
edan gabe ez utzi:
i, i, i: ardoak gaitu busti.

O, o, o: hau bihontzako dago,
edan dezagun oro,
zuk orain (e)ta nik gero:
o, o, o: hau bihontzako dago.

U, u, u: ardoak gaitu galdu,
gehiegi edan degu,
lurra irago digu:
u, u, u: ardoak gaitu galdu.

6. GOIZUETAN

Goizuetan bada gizon bat
deritzen zaio Trabuko.
hitzak ederrak bihotza paltso
sekula etzaio paltako,
egin dituan dilijentziak
berari zaizkio damuko.

Ongi ongi oroitu hadi
zer egin huen Elaman.
difuntu horrek izatu balu
jarraikilerik Lesakan,
orain baiño lehen egongo hintzan
ni orain nagoen atakan.

Nere andreak ekarri zuen
Aranaztikan dotea.
Hobe zukean ikusi ezpalu
Berdabioko atea:
orain etzuen hark idukiko
dadukan pesalumbrea.

Nere buruaz ez naiz oroitzen
zeren ez naizen bakarra:
hazitzekoak hor uzten ditut
bi seme ta hiru alaba.
Jaun zerukoak adi dezala
hoinen amaren negarra.

7. MAITIAK GALDE EGIN ZAUTAN

1. Maitia galde egin zautan
polit nintzanez; (berriz)
Polit, polit nintzela baina,
larrua beltz....larrua beltz.
2. Maitiak galde egin zautan
premu nintzanez; (berriz)
Premu, premu nintzela baina,
etxerik ez....etxerik ez.
3. Maitiak galde egin zautan
poltsa banuenez; (berriz)
Poltsa, poltsa banuela baina,
dirurik ez....dirurik ez.
4. Maitiak galde egin zautan
lana banuenez; (berriz)
Lana, lana banuela baina,
gogorik ez....gogorik ez.
5. Gaixoa, hil behar dugu
gu biok gosez; (berriz)
Gosez, gosez hil behar baina,
elkar maitez....elkar maitez.

8. PASAIAKO HERRITIK

1. Pasaiako herritik dator notizia
zezen bat izan dala jenioz bizia.
Kantatutzeroa noa bistan ikusia,
alegratzeko triste dagoen guzia.
2. Santiago eguna Pasaian seinale,
ailegatu ez danak egin beza galde.
Hasieran jendea zezenaren alde,
azkenean ez ziran arrimatu zale.
3. Gure Pasaia beti sonatua dago,
errapin gabe ez da urte bat igaro
Hurrengoan jarriko dituztela nago
barrera estuago zezen handiago.
4. Torilotik atera zuten lehendabizi,
behi zahar bat gidari bandera ta guzi.
Harrapatzen zuena burrukatzen hasi,
azkenean kanpora plazatik ihesi.
5. Hiru komertzianta plazatik kanpoan,
pospolo ta barkilo labana tratuan.
Pareta egon arren hamar oin altuan
panparroi pasatu zen putzura saltoan.
6. Hoiiek horrela eta gehiago ere bai
lurrean ziraldoka egin zuten lasai.
Ezkonberriak eta zenbait dama galai,
zezenaren mendean ez zuten jarri nahi.
7. Plazatik itsasora salto da igeri
adarrak besterikan ez zuen ageri.
Bakeroa begira bere zezenari
eseri ta jan ditu hiru libra ogi.

9. KANTARI EUSKALDUNA

Gitarra zahartxo bat da neretzat laguna,
honela ibiltzen da artista euskalduna: | berriz
egun batean pobre, beste batez jauna,
kantari pasatzen det nik beti eguna.

Nahiz dela Italia, orobat Frantzia, |
bietan bilatu det anitz malezia. | berriz
Ikusten badet ere nik mundu guztia
beti maitatuko det Euskalerrria.

Jaunak ematen badit neri osasuna |
izango det oraindik andregai bat ona. | berriz
Hemen badet frantsesa interesa duna,
baina nik nahiago det hutsik euskalduna.

Agur Euskalerrria, baina ez betiko; |
bost edo sei urtetan ez det ikusiko. | berriz
Jaunari_eskatzan diot grazia_emateko
nere lur maite hontan hezurak uzteko.